2021eko urtarrilean erregistratutako langabezia

2021ko urtarrilean zehar LANBIDEko bulegoetan % 1,15 langabe gehiago erregistratu dira, langabe kopurua 1302730da, aurreko hilean baino 1.490 gutxiago. Azken 15 urtetan erregistratutako hirugarren langabezia igoera apalena da. Urtarrila langabezia igoerak erregistratzen diren hilabetea da; krisi aurreko garaian igoerak izaten ziren, baita krisi eta krisi ondorengo garaian ere.



Urte arteko eboluzioari dagokionez, 13.081 pertsonetan hazi da langabezia, eta urte honetako otsailarekin alderatuz, krisiaren hasiera, 13.491 langabe gehiago.



- **SEXUA**

Azken hilabetean langabezia gizonezkoen artean murrizten da (-% 0,81) eta emakumezkoen artean hazi (+% 2,80). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen langabezia % 13,42 hazi da eta emakumezkoena % 9,33. Gaur egun langabeen % 55,31 emakumeak dira. Beharrezkotzat jotzen diren jarduera askotan (osasuna, irekita mantendu zen merkataritza…) emakumeen pisua handia da, beraz, normala da emakumezkoen artean eragina apalagoa izatea.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia hazkunde nabarmenena 55 urte gorakoen artean izan da, % 1,53 hazi da langabezia adin tarte horretan. Gainontzeko adin tarteetan ere langabezia hazi egin da. Urte arteko bilakaeran 24 urte azpikoen hazkundea nabarmentzen da (+% 29,37); hazkunde apalena 54 urte gorakoen artean izan da (+% 6,56).

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Urtarrilean zehar, langabezia hazi egiten da zerbitzu sektorean (+% 2,33) eta lehen sektorean (+ 1,61), eta, aldiz, murriztu eraikuntzak (-% 1,39) eta industria sektorean (-% 3,74). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 6,86 murriztu da. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz zerbitzu sektoreko hazkundea (+% 11,64) eta industria sektorekoa (+% 8,83) nabarmentzen dira. Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 14,00 hazi da.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa handienak izan dituzten jarduerak hauek izan dira: hezkuntza (-483), enpleguarekin erlazionatutako jarduerak (-375) eta metalurgia (-155). Langabezia hazkunde nabarmenena txikizkako merkataritza (+734) izan dira. Langabezia nabarmen hazi da ere egoitzetako laguntzan (+456) eta janari eta edarien zerbitzuak (+190).

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 467 pertsonatan hazi da (+% 0,69) eta epe laburrekoa 1.023 pertsonatan hazi da (+% 1,66). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabeen artean (+% 2,24) eta epe luzekoen artean (+% 20,80) nabarmen hazi da langabezia. Egoera ahulenean aurkitzen diren pertsonak pairatu dute gehien lan merkatuaren gorabeheren eragina, beren egoera ezegonkorragatik lan merkatuan sartu eta atera dabiltzan pertsonak. Gertaera horren eragin zuen aurreko hileko langabeziaren hazkundea eta hilabete honetako murrizketa. Gaur egun 67.983 langabe, % 52,00, epe luzeko langabeak dira.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Urtarrilean langabeziaren bilakaera hiru lurraldeetan ondorengoa izan da: Araban % 2,07 hazi da (449 pertsona gehiago), Gipuzkoan % 1,57 hazi da (542 pertsona gutxiago) eta Bizkaian % 0,68 hazi da (499 pertsona gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz Arabak erregistratu du eboluzio okerrena % 14,06ko hazkundearekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 12,51ko igoerarekin eta azkenik Bizkaian % 9,62 hazi da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 199 pertsonatan hazi da langabezia (+% 0,79), Gasteizen 449 pertsonatan (+% 2,67) eta Donostian 204 pertsonatan hazi da (+% 2,35). Hazkunde nabarmenak izan dituzten beste eskualde batzuk, Ezker Eskualdea (+265), Oarsoaldea (+116) eta Gobela (+88).

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 21,67), Sestao (% 19,53), Bastida (% 17,26), Balmaseda (% 17,39) eta Santurtzi (% 16,70%).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2021ko urtarrilean 45.448 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 2.045 langabe gehiagok. Langabeen % 34,8k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 24.817 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 15,8 dira horiek. 20.631 langabek (% 15,8), berriz, langabezia prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 36,5), Bizkaian % 34,1ekoa da eta Araban % 34,1ekoa.

2021eko urtarrilean erregistratutako langabezia

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 1.18 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz 0.55 murriztu da.

Urtarrilean ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua igo egin da.

- **JATORRIA**

Langabeen % 16,1 (20.994 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia % 2,74 hazi da atzerritarren artean, eta % 0,86 bertakoen artean. Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 11,87 hazi da, eta bertakoen artean % 10,98.

Langabe atzerritarren % 33,1 Afrika iparraldekoak dira, % 25,0 Latinoamerikatik datoz, % 18,8 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,3 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,8, azkenik, Asiatik. Urtarrilean Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (+409); Afrika iparraldetik etorritakoen taldeak jarraitzen dio (+159).

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 59,7k (78.062 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 630 langabetu gehiago erregistratu dira. Talde horretan % 0,81 hazi da langabezia azken hilean. Azken urtean % 9,92 hazi de langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 9,1 dira. Talde horretan % 1,73 hazi da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 13,32. Urteko erlazioan, balore erlatiboetan, gehien hazi den taldea izan da.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 24.352 dira, hau da, langabeen % 18,6. Talde hau urtarrilean zehar % 2,36 hazi da, eta azken urtean % 13,10 hazi. Hileko erlazioan gehien hazi den taldea da, balore erlatiboetan.

Azkenik, langabeen % 12,6k (16.425 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 0,59 hazi da langabezia azken hilabetean eta % 12,44 hazi azken urtean.

- **KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN**

Estatuan 762165 langabe gehiago daude aurreko hilean baino (% 1,96ko hazkundea). Guztira 3.964.353 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 1,15 hazi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 2,68 hazi da, Errioxan % 2,17 hazi da, Kantabrian % 2,68 hazi da eta Gaztela eta Leonen % 3,08 hazi da. Katalunian % 2,10 hazi da eta Madrilen % 1,66.

Urte arteko erlazioan % 11,12 hazi da langabezia EAEn, Estatuan % 21,84.

Lan-eskatzaile langabeak 2021ko urtarrilean

	urt-2021	abe-2020	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	58.418	58.898	-480	-0,81
EMAKUMEZKOAK	72.312	70.342	1.970	2,80
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	10.872	10.708	164	1,53
GIZONEZKOAK	5.701	5.730	-29	-0,51
EMAKUMEZKOAK	5.171	4.978	12	3,88
25-44 URTE:				
GUZTIRA	55.168	54.739	429	0,78
GIZONEZKOAK	23.901	24.309	-408	-1,68
EMAKUMEZKOAK	31.267	30.430	837	2,75
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	64.690	63.793	897	1,41
GIZONEZKOAK	28.816	28.859	-43	-0,15
EMAKUMEZKOAK	35.874	34.934	940	2,69
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA				
INDUSTRIA	2.754	2.714	40	1,47
ERAIKUNTZA	15.404	16.002	-598	-3,74
ZERBITZUAK	8.522	8.642	-120	-1,39
AURREKO ENPLEGURIK GABE	88.353	86.341	2.012	2,33
LURRALDE HISTORIKOA:	15.697	15.541	156	1,00
ARABA				
BIZKAIA				
GIPUZKOA	22.176	21.727	449	2,07
EAE	73.579	73.080	499	0,68

2021eko urtarrilean erregistratutako langabezia

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	4.506	12,1%	132	3,02	354	8,53
Oarsoaldea	3.953	10,9%	116	3,02	470	13,49
Donostia-S.Seb.	8.883	10,0%	204	2,35	1.284	16,90
Donost.Mendebaldea	3.430	9,4%	67	1,99	489	16,63
Tolosaldea	2.162	9,2%	-34	-1,55	194	9,86
Urola Erdia	1.408	9,2%	17	1,22	137	10,78
Goiherri	1.812	8,5%	28	1,57	231	14,61
Deba Garaia	2.673	8,8%	-33	-1,22	227	9,28
Deba Behera	3.014	11,3%	36	1,21	151	5,27
Urola Garaia	1.214	10,0%	-27	-2,18	106	9,57
Urola Kosta	1.920	8,6%	36	1,91	245	14,63
GIPUZKOA	34.975	10,0%	542	1,57	3.888	12,51
Vitoria-Gasteiz	17.269	13,9%	449	2,67	2.113	13,94
Aialako Ibarra	2.479	13,2%	-35	-1,39	215	9,50
Arabar Errioxa	777	14,5%	8	1,04	98	14,43
Arabako lautada	827	11,1%	15	1,85	144	21,08
Gorbeia inguruak	341	7,4%	1	0,29	63	22,66
Arabako Ibarrak	470	9,5%	11	2,40	67	16,63
Arabako Mendialdea	123	8,0%	-5	-3,91	23	23,00
ARABA	22.176	13,5%	449	2,07	2.733	14,06
Gobela	5.313	10,4%	88	1,68	467	9,64
Txorierri	2.525	11,1%	59	2,39	345	15,83
Uribealdea	3.447	10,5%	40	1,17	374	12,17
Durangaldea	3.832	10,3%	-104	-2,64	451	13,34
Busturialdea	2.433	11,3%	-15	-0,61	116	5,01
Lea-Artibai	1.112	9,2%	-63	-5,36	89	8,70
Enkarterriak	2.136	13,8%	-39	-1,79	8	0,38
Arratia-Zornotza	1.658	9,5%	-24	-1,43	128	8,37
Arratia-Nerbioi	1.468	11,3%	18	1,24	131	9,80
Bilbo	25.341	15,2%	199	0,79	2.419	10,55
Ezkerraldea	19.117	15,4%	265	1,41	1.529	8,69
Ibaizabal	5.084	12,7%	79	1,58	413	8,84
BIZKAIA	73.579	13,2%	499	0,68	6.460	9,62
EAE	130.730	12,2%	1.490	1,15	13.081	11,12

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dualntziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.